HIRIGINTZA I (3. maila)

2009-2010 ikasturteko 2. lauhilekoko 3. ariketa

INDARREAN DAGOEN PLANGINTZAREN AZTERKETA ETA KRITIKA

Donostiako Altza auzoko **Auditz-Akular-Landarro** izeneko eremurako indarrean dagoen plangintzaren azterketa eta kritika egingo da, taldeka. Horretarako, 2 plano emango dira, informazio grafikoa eta idatzitako ohar laburrak tartekatuz, din A-1 tamainakoak (beharrezkoak diren geruza gardenak gehitu daitezke, informazioa garbi erakutsi aldera).

1.- Donostiako Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrak Auditz-Akular-Landarrorako proposatzen duen plangintzaren azterketa eta kritika. Batez ere, proposatutako sistema orokorrena (berdegune handia, bide berriak...), kalifikazio orokorrarena, hirigintza-parametro orokorrena...

2.- AL-24 Auditz-Akular Hirigintzako Esku-hartze Eremuko Plan Partzialaren azterketa eta kritika. Ezarpena topografian, bide-sarea (eta ertzetako loturak), partzelazioa, tokiko ekipamendu eta espazio libreak, eraikuntzaren antolakuntza…

Donostiako Plan Orokorraren aurrerapena, www.donostia.org web gunean eskuragarri dago (lotura zuzena: http://ttiki.com/10182). Behin-betiko onetsitako Auditz-Akularreko Plan Partziala, http://www.ehu.es/hirigintza/auditz.rar helbidean.

Azterketen eskalak talde bakoitzak finkatuko ditu. Paperean (din A-1 formatuan, tolestu gabe; ordenagailuz egiten bada, A-3 formatuan inprimitu daiteke, baldin eta CD-an din A-1 formatuan badago) zein CD-an (.pdf edo .jpg formatuan) emango da, **martxoaren 23**ko 14:30ak baino lehenago.

Gasteizen, 2010eko martxoaren 8an.

Irakaslea: Unai Fdz. de Betoño